

Anoetako herritarrek Anoetako armarrria hautatzeko ez dute aukerarik izan inoiz. Anoetako Udalak herria egokien errepresentatuko lukeen armarrria aukeratzeko prozesua abian jarri zuen. Hilabete t'erdian proposamenak aurkezteko epea utzi ondoren, Arantzadi zientzia elkarteak proposamen bat aurkeztu du.

Anoetar zaren aldetik, zure ustez, bi aukera hauetatik zein armarririk errepresentazen du egokien gure herria?

Zure iritzia bi modutara eman deakezu

1.- Martxoaren 26, asteazkenean 20etan udaletxean burutuko den bilerara joanez

2.- Orri hau zure aukera eta izena emanez Anoetako Udaletxean aurkeztuaz.

IZENA:

AUKERA: 1 2

1. aukera: Gaur egungoa. Anoetako patroia

Anoetako armarriri buruzko lehen erreferentziak, Anoetako udal dokumentuetako tintazko zigiluetan aurki daitezke, XIX. mende amaierako idazkietan.

Gaur Egungo Anoetako armarrria herriko patroia den San Joan Batailatzailearen errepresentazio sinbolikoa da, hau da arkumea. Arkume honek bere hankartean gurutzea eta azpian biblia du, honen bueltan erramua azaltzen delarik.

Armarrriaren apaingarriztat Espainiar Erret Etxearen koroa topa daiteke. Aipatu dekorazioa estatuaren zentralizazio eta foruen galtzearen garaian, XIX mendean, bultzatu zen. Errepublikara garaian, 1931-37, herritarren berdintasunaren aurkako ziren motibo monarkikoak ezabatuak izan ziren arren Anoetan oraindik iraun egin du.



ANOETAKO UDALA

2. aukeraren esanahia: herritarrak, historia, natura

Arantzadi Zientzia Elkarteak aurkeztutako proposamenean Anoeta identifikatzen duten hiru irudi topa daitezke: Kukuak, Basagaingo burdin aroko hirixka eta Oria ibaia.

Kukuak herritarrak irudikatu nahi ditu. Aho hizkeran anoetarrak kukuak gara, eta hala gara ezagutuak ondoko herrietan ere, honen arrazoia zera da, inguruan lehenen Anoetan entzuten omen delako kuku hotsa.

Bestalde Basagaingo harresi eta etxeek historia adierazten dute, Anoetako sustraiak. Lehen anoetarrak (duela 2500 urte gutxi gora behera) Basagain mendian kokatu ziren, beraz herrixka honek herriaren sorrera irudikatzen du.

Azkenik Oria ibaiak natura eta geografia fisikoa adierazten ditu. Hau da Anoetan erabateko garrantzia izan duen natur elementua eta herriaren mugak zehazten dituen



